**Autokontsumorako Hegaztien Ustiategien Erregistroan ALTA emateko aldez aurreko jakinarazpena:**

Autokontsumorako hegazti biziak dituzten pertsonek nahitaez eman behar dute alta abeltzaintzako ustiategien erregistro orokorrean, hegazti-haztegiak antolatzeko oinarrizko arauak ezartzen dituen uztailaren 27ko 637/2021 Errege Dekretuaren 16.5 artikuluan ezarritakoaren arabera. Izapide hori errazteko eta hegazti-gripearen balizko fokuak kontrolatzeko informazio egokia izateko, Gipuzkoako Foru Aldundiak izapide hori bitarteko elektronikoen bidez egiteko gaikuntza ematen du, beherago azaltzen den bezala. Komunikazioa paperean ere erregistratu daiteke, titularraren NANaren fotokopia batekin batera, ohiko bideetan. (Edozein zalantza izanez gero, jar zaitez harremanetan gertuen duzun Eskualdeko Nekazaritza Bulegoarekin)

**Prozedura:** Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/

Urrats hauek jarraitu: *Tramiteen eta zerbitzuen katalogoa > Landa ingurunea > Nekazaritza > Nekazaritza Ustiategien Erregistroa*. (Jaitsi kurtsorea beherantz) pantaila hau agertuko da:

**HASIERA ETA ESKAERA**

**Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak**

Nekazaritza ustiategia inskribatzeko eskaera

Nekazaritza ustiategiari baja emateko eskaera

Nekazaritza ustiategian aldaketak egiteko eskaera

Lehentasunezko nekazaritzako ustiategi-ziurtagiri eskaera

Autokontsumorako Hegazti Ustiategien Erregistroan alta emateko aldez aurreko jakinarazpena

**Eskaera moduak**

- Internet
- Presentziala

**Internet bidezko eskaera**

Nekazaritzako Ustiategien Erregistroa: Eskaera bete ondoren, lotura honetan sakatu eta erantsi dokumentazio osagarriarekin batera

Lehentasunezko Nekazaritzako Ustiategia: Eskaera bete ondoren, lotura honetan sakatu eta erantsi dokumentazio osagarriarekin batera

Autokontsumorako Hegazti Ustiategien Erregistroa

**Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa**

- Ziurtagiria eta B@KQ

**Eskaera aurrez aurre** egiteko, bete pdf formatuan dagoen komunikazioa *(Autokontsumorako Hegaztien Ustiategien Erregistroan ALTA emateko aldez aurreko jakinarazpena)* eta eraman ezazu erregistro-bulego[1] batera NANaren kopia batekin batera.

**Eskaera Internet bidez** egiteko (Ziurtagiri elektronikoa edo B@KQ eduki behar duzu), jarraitu webgunean adierazten diren urratsak.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Dptua.
Dpto. de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural
Laguntzak eta Erregistroak
Ayudas y Registros

[1] Ayuntamiento, Correos, Oficina Comarcal Agraria o en el Registro de la Diputación Foral de Gipuzkoa para la Diputación Foral de Gipuzkoa, Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, Dirección General de Agricultura y Equilibrio Territorial, Servicio de Ayudas y Registros.

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: JAKI5317ce67-03e0-4657-977b-4bfec419dcac
*Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:* **https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks**
*Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* **https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv**